

Erregetako mirari bideak

Hondarribia, 35. zk., 1989-12/1990-01: 5.

Autobusean eseri da.

Irunera doana hartu du lehendabizi, eta hemen azken geltokira heldu denean, jaitsi eta, tapa-tapa, oinez joan da Donostirako irteten den autobusaren geltokiraino. Ez du herrian Donostira doala jakiterik nahi; berehala antzemango balioke zertara!; modu honetan, berriz, nahasten ditu malizia guztiak.

Malizia hau, amonarena da!

Bere semeak, edo errainak, bakarrik Donostirainoko bidaian jarri dela balekete, jakin nahiko lukete zertara, eta haserretuko lirateke.

Sekretu handiko bidaia du hau.

Sudurzapian troxatuta daraman eskuturreko erlojua ez dago puntuan aspaldi geratua ere badago!; baina balio du; amonak behar duenerako aproposa ere bada, zeren eta urre gorritzko bitxia da; Jaxinto senar difuntoak ezteiegunean eskaini ziona; hau hil zen arte xuxen ibili zena eta orain bi urte herioak eraman zionez gero geratua dagoena.

Kontatu zituen urrezko erloju finak difuntuaren ordu guztiak, azkenekorarte.

Zertarako du geroztik!...

Hau dena darabilki buruan Hondarribiako autobus berdea betiko gorabeherekin martxan doan bitartean. Bete da leporaino. Lanera doazen gizemakume gazteaz gehienbat. Goiztarra da Engraxi, baina batez ere gaur.

Han egon nahi du aurrena...

Hotel Maria Cristinaren aurrean autobusetik jaitsi denean ez da bertan galdezka, hasi, ezagunarekin topo egin dezake; joan da kantoiraino eta hemen lehen pasa den gizasemeari galdetu dio egunkariaren zati batean makatua dagoen zuzenbideaz. Gertu dagoenez gero, badoa bizi-bizi; gero, bilatu du patxaran etxearen zenbakia, atarira sartu eta igogailua hartu beharrean, izutzen baitute aparatu horiek! eskaileretatik igo da bigarren solairuraino eta arnasbeharrean dagola jo du tirrina. andre lodi bat irten zaio, eta honek amonari urrezko erlojua eskuan ikusi dion bezain laster sarrerazi eta aulkia eskaini dio mahaitxo borobil baten aurrean. Iluna da gela; mahaiko lanparargitan sudurzapi txuri-garbian utzi du Graxianak agerian zekarrena; andreak difuntuaren urre dizdiratiari beha egon ondoren bere esku lodikoteak hartu du zakarki eta esan dio;

"Ba al dabil?"

"Ez nator erlojua saltzera, urrea pisuan tratatzera baizik".

Beltzez jantzitako amonak ez zuen hau esateko arnas eta kemenik eratzten zitzaionik ematen, eta hara!

"Zenbateko balioa duela uste duzu zerorrek?" –esan dio erosleak.

"Zeuk esango nauzu hori, gusto baduzu"...

Eta lehen bezain hotza da andre lodiarri irten zaion hitza:

"Askotan bihotzak jarritako prezioa buruan duela agertzen da hemen jendea eta"...

"Nik neurea esango banizu –dio amonak– irri egingo zenidake, eta nahiago dut aurretik zeure ofizioko merkea entzun".

Esku lodi borobilaren potxiloan pisatu du haztamuan, nola nahi, preziorik ez duen ezkonberritako oparia.

Min eman dio Graxianari lotsagabekeria honek, baina oraindik entzun behar zion gorriz pintatutako aho borobilari esaten:

"Hiru mila pezeta"...

"Zortzi mila hirurehun eta berrogeita bost behar ditut", esan dio amonak instantean.

"Zenbat gramo pixatu dituzu bada?"!...

"Ez da hori; difuntuak egin zidan prezio gabeko eskaintza da gaur nire biloba bakarrari egin nahi diodan prezio gabeko oparia erosteko behar dudana, nire barruko balantza orekan gera dadin".

Bien artean ziurren dagona amona dirudi orain.

Berria den zerbait piztu da bi emakumeen pultsu honetan; bat, handi betea kolorez, bestea txiki argala beltzez.

"Gehiegi espero duzu nigandik"... esan dio andreak, baina ez burlakeriaz, bestalde, hunkiturik bezala.

Amona Engraxiren aurpegia argiz aldatu da andre tantaiari egiazko zirrara sumatu dionean, eta orduan eta ziurrago esan dio:

"Zure esku dago, badakit!!".

Lukurreroa isildu egin da, eta zutitu; badirudi azkenean andretxarra haserretu zaiola; baina ezer esan gabe gortina marroiaren atzean ezkutatu da; Graxiana zer entzun jarri den bezain laster hor dator diru bileteak kontatzen... amona Graxianaren aurrean eseri da eta galdetzen dio honi harrigarria den ahots gozo batez:

Ni ere izan naiz haurra; amonatxo maitagarri bat ere izan nuen eta Erregeen zai loak ezin harturik egona naiz, orain besterik badirudit ere... bakarrik eta babes gabe geratu bainaiz... Zuk urrezko erlojuari markatu diozun presioaren diruak zer erosiko dio zure bilobatxoari?... (Graxianak ez zuen, egiatan, hainbeste espero!)... Ni Laura naiz... lagundu nahi zaitut niri behin Erregeek ekarri zidaten erregali polit baten oroimenez", eta diru bileteak eta sosak jartzen ari da Graxianaren esku ximurretan.

Esango dizut: –dio amonak azkenean– mamuxel ilegorri baten tratua egina dut Hondarribiako jostailudendan; ibiltzen da, "ama" esaten du, eta neuk sekula izan ez dudana alabatxo baten ametsezko irudia gogarazten dit. Hala ere ez da neretzat, noski; nire semeak eman didan bilobatxoa egunero geratzen da dendaurrean panpin horri begira. Atzo arte ez nekien nola ordainduko nuen, baina oheratzerakoan egunkaria miaztea gustatzen zait, eta bart lan honetan ari nintzela irakurri nuen zure iragarkia; loak hartu gabe pasa dut gaua, eta gaur goizean xuxen-xuxenean etorri natzaizu, eta asmatu dut!"...

Grazianari begiak busti zaizkio.

Laurak amonari eskuak estutu dizkio, ezer esan gabe.

Amona ez dago ametsetan, eta halere badaezpada esnatu aurretik dirua poltsatxoan sartu du, zutitu eta irten egin da eskerrak emanak eskailera behera gero kalera eta itzuli da autobusaren geltokira; han dago hutsik hamar minutu barru irtengo dena.

Laster bete da.

Ez al dio inork galdetuko nondik nora dabilen Donosti partetik! Eta galdetuko baliote ere ez luke inork ezer sinistuko.

Etxera sartu bezain laster poltsa ireki eta dirua kontatu du: osorik dago. Ez da ametsa!

Orain sinesten du Erregeak, etxez etxe egiatan ibiltzen ez badira ere, haien izpiritua zeharkako bidetatik baliatzen dela askotan bihotz-eraginak sortzeko.

Mirariak bitarteko asko izan baititzake.